

Zuzenbidearen Historia

Amaia Alvarez Berastegi
Roldán Jimeno Aranguren

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa



LIBURU
AKADEMIKOAK
EUSKARAZ

Gure unibertsitatean euskararen presentzia indartzea da bilduma honen helburua, eta material akademiko baliagarriak eta kalitate onekoak jartzea gure ikasleen eskura.

Izenburua: Zuzenbidearen Historia

Egileak: Amaia Alvarez Berastegi eta Roldán Jimeno Aranguren

Testuaren hizkuntza

egokitzapena: Hizkuntza Politikarako Atala (NUP)

Argitaratzailea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa

© Nafarroako Unibertsitate Publikoa

© Amaia Alvarez Berastegi eta Roldán Jimeno Aranguren

Azalaren diseinua: Kō. Comunicación Gráfica

Fotokonposizioa: Pretexto

Inprimategia: Rodona Industria Gráfica

ISBN: 978-84-9769-361-5

Lege gordailua: NA 1642-2020

Obra honen edozein kopia, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, ezinbestekoa da bere titularren baimena, salbu eta legeak espresuki besterik esaten ez badu. Jarri harremanetan CEDROrekin (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org) baldin eta obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu edo kopia digitalen bat egin behar baduzu.

Banaketa: Komunikazio Atala (Argitalpenak)

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Arrosadiko campusa

31006 Iruñea

publicaciones@unavarra.es

Liburu honek parekoen bi ebaluazio izan ditu, zeinak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren argitalpenen arloak liburu akademikoetarako duen ebaluazio prozedurari jarraituz egin baitira.

Aurkibidea

Hitzaurrea	15
------------------	----

1. gaia. Historia eta zuzenbidea. Zuzenbidearen iturriak. Mendebaldeko sistema juridiko nagusiak

I. HISTORIA ETA ZUZENBIDEA	19
I.1. Historia, Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Historia	19
I.1.1. Historia	19
I.1.2. Zuzenbidea	21
I.1.3. Zuzenbidearen historia: izaera eta metodo zientifikoa	23
I.2. Zuzenbidearen historiaren xedea	24
I.2.1. Alderdi materiala mugatzea	24
I.2.2. Alderdi espaziala mugatzea	25
I.2.3. Alderdi kronologikoa mugatzea	26
II. ZUZENBIDEAREN ITURRIAK	27
II.1. Iturri materialak edo benetakoak	27
II.2. Iturri formalak	28
II.2.1. Legea	28
II.2.2. Nazioarteko konbentzioak	29
II.2.3. Ohitura (usadioa)	29
II.2.4. Jurisprudentzia	30
II.2.5. Doktrina	30
II.2.6. Zuzenbidearen printzipio orokorrak	31
III. MENDEBALDEKO SISTEMA JURIDIKO NAGUSIAK	31
III.1. Zuzenbide erromanistak	31
III.2. <i>Common Law</i>	32

2. gaia. Zuzenbide erlijiosoak

I. ZUZENBIDE ERLIJIOSOAK	33
II. HEBREAR ZUZENBIDEA	33
II.1. Bilakaera historikoa	33
II.2. Ezaugarriak	35

II.3. Zuzenbidearen iturriak	35
II.3.1. Toráh (Pentateukoa)	36
II.3.2. Ahozko legea	36
II.3.3. Mishná	36
II.3.4. Gemará	37
II.3.5. Talmuda eta bere iruzkinak	37
III. ZUZENBIDE KANONIKOA	38
III.1. Zuzenbide kanonikoaren garrantziaren faktoreak	38
III.2. Elizaren eta estatuaren arteko harremanak: bilakaera historikoa	39
III.2.1. Erdi Aroko Mendebaldea	40
III.2.2. Trentoko Kontzilioa: Protestantismoaren aurkako erreakzio katolikoa	41
III.2.3. Konkordatuak	41
III.2.4. Elizaren eta estatuaren arteko banaketa	42
IV. ZUZENBIDE MUSULMANA	43
IV.1. Bilakaera historikoa eta ezaugarriak	43
IV.2. Zuzenbidearen iturriak	44
IV.2.1. <i>Xaria</i>	44
IV.2.2. <i>Fiqh</i>	45
IV.2.3. <i>Xariaren</i> lau iturriak	45
IV.2.4. Zuzenbidearen beste iturri batzuk	47
IV.3. Madhab eskolak	47
IV.4. Zuzenbide musulmanaren bilakaera garaikidea	48
IV.4.1. Zuzenbide musulman garaikidearen egokitzapena	49
IV.4.2. Sistema juridiko musulmanen bilakaera desberdinak	50

3. gaia. Erdi aro goiztiarreko zuzenbide kristaua: elementuak, ezaugarriak eta iturriak

I. ERDI ARO GOIZTIARREKO ZUZENBIDEA ETA MUNDUAREN ORDENA NATURALA	51
II. GIZARTEAREN ANTOLAMENDUA ETA BOTEREA (ELIZA, ERREGEAK, NOBLEAK)	52
III. HISPANIAKO ERDI ARO GOIZTIARREKO ORDENAMENDU JURIDIKOEN ANIZTASUNA; ERREKONKISTA ETA BIRPOPULAKETA	54
III.1. Ordenamendu juridikoen aniztasuna	54
III.2. «Errekinkista» («Birrekinkista») eta birpopulaketa	54
IV. ERDI ARO GOIZTIARREKO HISPANIAR ZUZENBIDEAREN ELEMENTUAK	56
IV.1. <i>Liber iudiciorum</i> bisigodoen lege multzoaren indarraldiari buruz	57
IV.2. Hemengo zuzenbide baten garapena eta antzinako tradizio juridikoen balizko berrindartzea	59
IV.3. Aplikazio pertsonaleko eskubideak	61
IV.4. Frankoen zuzenbidearen eragina	61
IV.5. Feudalismoa eta zuzenbide feudala	63
V. ZUZENBIDEAREN ITURRIEN SISTEMA ERDI ARO GOIZTIARREAN	64
V.1. Ohitura	64
V.2. Hiri gutunak eta udal foruak	65

4. gaia. *Ius commune*. I. Zuzenbide erromatar eta kanonikoa

I. ZUZENBIDE ERROMATARRA	69
I.1. Zuzenbide erromatarraren justinianotar formulazioa	69
I.1.1. Justinianoren biltze lana	69
I.2. <i>Corpus iuris civilis</i> lege bilduma Erdi Aro goiztiarrean	70
I.3. Glosagileen eskola edo Boloniako eskola (XII. eta XIII. mendeak)	71
I.3.1. Testuak	72
I.3.2. Helburua	72
I.3.3. Metodoa	72
I.3.4. Glosagile nagusiak	73
I.4. Orléanseko eskola (XIII. mendea)	73
I.5. Iruzkingileen, glosagileen ondorengoen edo Bártoloren jarraitzaileen eskola (XIII., XIV. eta XV. mendeak): <i>mos italicus</i> metodoa	74
I.5.1. Metodoa	75
I.5.2. Legelari nagusiak	75
I.6. Eskola humanista edo historikoa: <i>mos gallicus</i> metodoa	76
I.6.1. Metodoa	76
I.6.2. Legelari nagusiak	77
I.7. Zuzenbiderako eskola historikoa	78
I.8. Pandektistika	81
II. ZUZENBIDE KANONIKOA	82
II.1. Zuzenbide kanonikoaren iturriak	82
II.1.1. <i>Ius divinum</i>	83
II.1.2. Legeria kanonikoa	83
II.1.3. Ohitura	84
II.1.4. Zuzenbide erromatarraren maileguak	85
II.1.5. Zuzenbide kanonikoaren bildumak eta kodifikazioak	85
II.2. Zuzenbide kanonikoaren metodoa: dekretistak eta dekretalistak	87
III. <i>IUS COMMUNE, UTRUMQUE IUS</i> (ZUZENBIDE ERKIDEA, BI ZUZENBIDEAK)	87

5. gaia. *Ius commune*. II. Zuzenbide erkidearen eraketa eta Iberiar penintsulan izan zuen harrera

I. ZUZENBIDE ERKIDEA IBERIAR PENINTSULAN NOLA BERETU ZUTEN	89
II. ZUZENBIDE ERKIDEA IBERIAR PENINTSULAN ZABALTZEN LAGUNDU ZUTEN ARRAZOIAK ETA EGOERAK	90
III. ZUZENBIDE ERKIDEAREKIKO AURKAKOTASUNA	91
III.1. Herri xehearen eta handikien aurkakotasuna	91
III.2. Ohiturazko zuzenbidea erroturik zeukaten herrialdeen oposizioa	92
IV. ZUZENBIDE ERKIDEAREN ONARPENA NOLA ISLATU ZEN ESKUALDEETAN	92
V. ZUZENBIDE ERKIDEAREN ONARPENA NOLA ISLATU ZEN BIZITZA JURIDIKOAREN GARAPENEAN	93
V.1. Zuzenbidearen aplikazio praktikoa notarioen edo eskribauen bulegoetan	93
V.2. Zuzenbidearen aplikazio praktikoa justizia auzitegietan: jurisdikzio sekularra eta jurisdikzio eklesiastikoa	93

V.2.1. Jurisdikzio sekularra	93
V.2.2. Jurisdikzio eklesiastikoa	95
V.3. Zuzenbide berria legegintzaren bidetik onestea	98
V.3.1. Gaztela	98
V.3.2. Aragoiko Koroa	98
V.3.3. Zuzenbidearen osagarri gisa testu multzo osoa onestea	99
V.4. Zuzenbide erkidearen lanketa zientifikoa	100
V.4.1. Erdi Aroko doktrina	100
V.4.2. Aro modernoak: humanismo juridikoaren pisu txikia eta <i>mos italicus</i> metodoaren jarraipena	101
VI. ZUZENBIDE ERKIDEA ETA HAREN GATAZKA ZUZENBIDE NAZIONALAREKIN ARO MODERNOAN: GAZTELAKO ITURRIEN LEHENTASUN ORDENA	103
VI.1. Alcaláko Ordenamendua (1348)	104
VI.2. Toroko legeak (1505)	105
VI.3. Trentoko Kontzilioaren onarpena	105
VI.4. Errege zuzenbidearen eta Gorteen zuzenbidearen bildumak	105
VII. NAFARROAREN BEREZITASUNA	106
VII.1. Nafarroako Foru Orokorra eta haren hobekuntzak	106
VII.2. Lege konpilazioak	108

6. gaia. Estatu modernoak

I. EUROPAKO ESTATU MODERNOAREN GENESIA	109
I.1. Estatu modernoaren genesia	109
I.2. Estatu arrazoia	110
I.3. Westfaliako Bakea eta nazio-estatuaren sendotzea (1648)	111
II. ESPAINIAKO MONARKIA UNIBERTSALA	111
II.1. Monarkia katolikoa, Espainiako monarkia, Espainiako monarkia unibertsala, Inperio unibertsala	111
II.2. Erresumak eta koroak; koroen batasunak	112
II.3. Nafarroaren konkista eta nola erantsi zuen Gaztelak	113
II.3.1. Konkistaren ondorioak	113
II.3.2. Konkistaren justifikazioa: gerra justuaren tituluak eta jaraunsteko eskubidea	114
II.3.3. Nola erantsi zuen Gaztelako Koroak Nafarroa	115
II.3.4. Nafarroako erresumak bere estatus politikoari eutsi zion	115
II.4. Monarkia unibertsalaren eraketa	116
III. PAKTISMO POLITIKOA ETA ERREGEAREN ERABAKITZEKO AHALMENA: ABSOLUTISMOA ETA EGITURAREN EDO ESTAMENTUEN ORDEZKARI DEN ESTATUA	117
III.1. Paktismo politikoa	117
III.2. Erregearen erabakitze ahalmena	118
IV. ESTATU UNITARIOANTZ	120
IV.1. Monarkia juridikoki batzeko austriar erregeek egin zituzten lehen urratsak	120
IV.2. Ondorengotza Gerra	121
IV.3. Oin Berriko Dekretuak	122
IV.4. Nafarroako Erresumaren eta hiru euskal probintzien salbuespenak	124

7. gaia. Ilustrazioaren doktrina

I. ZUZENBIDE NATURALAREN ESKOLA ARRAZIONALISTA	127
II. IUSNATURALISMO ARRAZIONALISTAREN EZAUGARRIAK	128
II.1. Metodo matematikoak arazo juridiko eta politikoei aplikatzea	128
II.2. Asmo politiko esplizitua	129
II.3. Etika laikoa	129
II.4. Zuzenbide unibertuala	129
II.5. Egoera naturala eta kontratu soziala	130
II.6. Zuzenbide naturala eta absolutismoa	131
II.7. Zuzenbide naturala eta kodeketa	132
III. ILUSTRAZIOAREN GARAIKO POLITIKAREN GAI NAGUSIAK	132
III.1. Montesquieu: neurritasunaren aldeko askatasuna	132
III.1.1. «Legeen espirtuaz» laneko soziologia	133
III.1.2. Askatasuna eta estatua	133
III.1.3. Monarkia Frantziako erara	134
III.1.4. Montesquieuren politika	134
III.2. Kontratu soziala: Hobbes, Locke eta Rousseau	135
III.2.1. Thomas Hobbes (1588-1679)	135
III.2.2. John Locke (1632-1704)	136
III.2.3. Jean-Jacques Rousseau (1712-1778)	137
III.3. Despotismo ilustratua	140
III.4. Ekonomiaren alderdi nagusia: liberalismo ekonomikoaren jatorria	141
III.4.1. Adam Smith (1723-1790) eta liberalismo ekonomikoaren jatorria	141
III.4.2. Fisiokratak	142
IV. ILUSTRAZIOA ETA ZUZENBIDE PENALA: BECCARIA ETA HAREN ERAGINA	142
IV.1. Zuzenbide penala Beccariaren aurretik	142
IV.2. Beccaria eta haren «Dei delliti e delle pene» saiakeraren eragina	144

8. gaia

Ilustrazioak Britainia Handiko eta Amerikako iraultzetan izan zuen eragina

I. BRITANIA HANDIKO IRAULTZA	147
I.1. Aurrekariak: Absolutisten eta <i>Common lawyers</i> izenekoek arteko liskarrak	147
I.2. <i>Common lawyers</i> izenekoek garaipena	148
I.3. Iraultza Loriatsua (<i>Glorious Revolution</i>)	149
I.4. <i>Bill of Rights</i> deklarazioa eta ondoren ezarriko ziren neurriak	150
II. IPAR AMERIKAKO IRAULTZA	151
II.1. Ipar Amerikako Iraultzaren aurrekariak	151
II.2. Independentzia deklarazioa	152
II.3. Konfederazioa	154
II.4. Estatu Batuetako Konstituzioa (1787): ezaugarriak	156
II.4.1. Nazio mailako eta estatuen mailako ordezkariak	157
II.4.2. Eskumenak nazio mailan eta estatuen mailan	157
II.4.3. Botere betearazle indartsua baina mugatua	158
II.4.4. Gizabanakoen eskubideak	158

II.4.5. Esklabotasunaren arazoa geroratzea	158
II.5. Estatu Batuetako Konstituzioaren printzipioak	159
II.5.1. Herri subiranotasuna	159
II.5.2. Botereen bereizketa eta oreka (<i>checks & balances</i>)	160
II.5.3. Legeen berrikuspena (<i>judicial review</i>)	160
II.5.4. Federalismoa	161
II.6. Estatu Batuetako Konstituzioari egin zizkieten aurreneko hamar zuzenketak (<i>Bill of Rights</i>)	162

9. gaia. Frantziako Iraultza eta lehen konstituzionalismoaren eragina Espainian

I. FRANTZIAKO IRAULTZA	165
I.1. Iraultza prozesua	165
I.2. Zuzenbide publiko iraultzailearen kontzeptu berriak	167
I.3. Gizakiaren eta herritarren eskubideen deklarazioa	168
II. HASIERAKO KONSTITUZIONALISMOAREN ERAGINA ESPAINIAN	169
II.1. Estatu liberala zuzenbidezko estatu gisa	169
II.2. Nazio subiranotasuna eta botere konstituziogilea	171
II.3. Herritarraren eskubideak estatuaren helburu diren aldetik	172
II.4. Botereen bereizketa	175
II.5. Konstituzioa	176
II.5.1. Aurkezpena	176
II.5.2. Konstituzioaren kontzeptu soziologikoa	177
II.5.3. Konstituzioaren kontzeptu arauemaile arrazionala	178
II.6. Liberalismo doktrinarioak: ideologia liberala murriztea. Espainiako «moderantismoa»	179
II.6.1. Frantziako doktrinalismoa	179
II.6.2. Espainiako «moderantismoa»	181
II.7. Arauen piramidea: Konstituzioa, lege arruntak eta gobernuaren xedapenak. Ohiturari atxikitzen zaion izaera	182

10. gaia. Kodifikazioa

I. ILUSTRAZIOAREN GARAIAKODIFIKAZIOAK	185
I.1. Bavariako kodifikazioa	185
I.2. Prusiako kodea	186
I.3. Austriako kodea	188
II. KODIFIKAZIO LIBERALA: FRANTZIAKO EREDUA	189
II.1. Kode Zibila	189
II.2. Beste kode batzuk	191
II.3. Frantses kodifikazioaren eragina	192
III. ESPAINIAKO KODIFIKAZIOA	193
III.1. Kodifikazio penala	193
III.1.1. Aurrekariak	193
III.1.2. 1822ko Kode Penala	194
III.1.3. 1848ko Kode Penala	194

III.1.4. 1870eko Kode Penala	195
III.1.5. 1928ko Kode Penala	195
III.1.6. 1932ko Kode Penala	196
III.1.7. 1944ko Kode Penala eta haren berrikuspenak	196
III.2. Merkataritzako zuzenbidearen kodifikazioa	197
III.2.1. 1829ko Merkataritzako Kodea	197
III.2.2. 1885eko Merkataritzako Kodea	198
III.3. Prozesu legeak	198
III.4. Kodifikazio zibila	199
III.4.1. Aurreneko proiektu kodifikatzaileak (1810-1840)	199
III.4.2. Isabeldar aldiko proiektu kodifikatzaileak (1843-1876)	200
III.4.3. 1889ko Kode zibila	201
III.4.4. Foru eskubideen iraupena	204

11. gaia. Konstituzionalismoa eta nazioarteko ordena juridiko berria XIX. mendean

I. NAZIOARTEKO ORDENA JURIDIKO BERRIA: NAPOLEONEN INPERIOA, VIENAKO KONGRESUA, EUROPAKO ITUNA, ALIANTZA SANTUA	207
II. MUGIMENDU IRAULTZAILEAK (1820-1848)	209
II.1. Frantziako eta Espainiako iraultzak	209
II.2. Ondorio bat: Amerikako errepublika hispaniarren independentzia	211
II.3. Beste ondorio bat: Nafarroa erresuma izatetik probintzia izatera igaro zen	213
III. LIBERALISMOAREN DOKTRINA EDO BURGESIA KONTSERBADOREAREN GARAI-PENA	215
IV. XIX. MENDEAREN BIGARREN ERDIALDEKO ESPAINIA	216
IV.1. Espainiako konstituzionalismoa	216
IV.2. Euskal foruei emandako soluzioa	218
IV.3. Espainiarekiko mendekotasunaren amaiera Kuban eta Filipinetan	218
V. BIGARREN INPERIOA ETA HIRUGARREN ERREPUBLIKA FRANTZIAN (1852-1870) ...	219
VI. NAZIO-ESTATU LIBERALA: ITALIAREN BATASUNA ETA ALEMANIAREN BATA-SUNA	220
VI.1. Batasunaren arrazoiak	220
VI.2. Italiaren batasuna	220
VI.3. Alemaniaren batasuna	221
VII. INPERIO PLURINAZIONALAK (ERRUSIAKO INPERIOA ETA AUSTRIA-HUNGARIAKO INPERIOA)	222
VIII. TURKIAKO INPERIOA	223
IX. JAPONIAKO INPERIOA	223

12. gaia. Industria Iraultza, kolonialismoa eta estatu liberalari egindako kritika sozialista

I. INDUSTRIA IRAULTZAK	225
I.1. Industria Iraultzaren sorrera	225
I.2. Industria Iraultzaren ondorioak	226

I.3. Nekazarien Iraultza	226
I.4. Bigarren Industria Iraultza	226
I.5. Industrializazioa Espainian	227
II. KOLONIALISMOA	228
II.1. Kolonialismoan eragin zuten printzipioak	228
II.2. Europaren kolonialismoa eta Ekialdeko kolonialismoa	229
II.3. Erregimen koloniala: behin betiko salbuespen egoera	231
III. ESTATU LIBERALARI EGINDAKO KRITIKA SOZIALISTA	233
III.1. Sozialismoa	233
III.2. Marxismoa	234
III.3. Anarkismoa	235
III.4. Elizaren doktrina soziala	237
III.5. Langileen mugimendua	237
III.5.1. Lan harremanak hasierako liberalismoaren testuinguruan	237
III.5.2. Hasierako sindikalismoa eta Ingalaterrako mugimendu kartista	238
III.5.3. Alemaniako eta Frantziako hasierako sindikalismoa	239
III.5.4. Europako langileen mugimenduaren batasuna: Internazionalak	239
III.5.5. Langileen mugimendua eta sindikalismoa Espainian	241

13. gaia. Nazioarteko ordena eta XX. mendeko lehen hereneko Europako sistema politikoak

I. LEHEN MUNDU GERRAREN ONDORIOAK	245
I.1. Ondorio sozioekonomikoak	245
I.2. Lurraldetasunari eta politikari lotutako ondorioak	247
I.3. Ondorio ideologikoak	247
II. NAZIOEN ELKARTEA	247
III. LEHEN DESKOLONIZAZIOA	249
IV. ERRUSIAKO IRAULTZA	250
IV.1. Abiapuntua: Tsarren Inperioa	251
IV.2. 1917ko Azaroko Iraultza Boltxebikea	251
IV.3. Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna (SESB)	252
V. 1929KO KRISI HANDIA ETA IRTENBIDE EKONOMIKOAK	253
V.1. 1929ko krisia	253
V.2. Krisiari emandako irtenbideak	254
V.2.1. Liberalismo klasikoa	254
V.2.2. Keynesen teoria ekonomikoa	255
V.2.3. <i>New Deal</i> (Itun Berria)	255
V.2.4. Hitlerren konponbidea	256
V.2.5. Mussoliniren konponbidea	257
VI. ESPAINIAKO BIGARREN ERREPUBLIKA	257
VI.1. Testuingurua: Bigarren Errepublika (1931-1936)	257
VI.2. 1931ko Konstituzioa	258
VI.3. Kataluniako, Euskal Herriko eta Galiziako estatutuak	259
VI.3.1. Kataluniako Estatutua	259

VI.3.2. Hego Euskal Herriko Estatutua izatetik, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Estatutua izatera	260
VI.3.3. Galiziako Estatutua	261
14. gaia. Erregimen totalitarioen zuzenbidea	
I. EUROPAKO DIKTADURAK	263
I.1. Mussoliniren Italia faxistaren, Hitlerren Alemania naziaren eta Francoren Espainia nazional katolikoaren ezaugarri komunak	263
I.2. Frankismoaren erregimenaren ezaugarri bereziak	268
I.2.1. Nazionalkatolizismoa	269
I.2.2. Frankismoaren egokitzapena nazioarteko ordena berrira Bigarren Mundu Gerraren ondoren	269
I.3. Frankismoaren oinarritzko legeak	271
I.3.1. Lanaren Forua (1938)	271
I.3.2. Gorteak osatzeko 1942ko uztailaren 17ko Legea	272
I.3.3. Espainiarren Forua (1945)	273
I.3.4. Erreferendum Nazionalaren Legea (1945)	273
I.3.5. Ondorengotza Legea estatuburu izateko (1947)	274
I.3.6. Mugimendu Nazionalaren Oinarritzko Printzipioen Legea (1958)	274
I.3.7. 1967ko urtarrilaren 10eko Estatuaren Lege Organikoa	275
II. HISPANOAMERIKAKO DIKTADURAK	275
II.1. Latinoamerikako oligarkiak aurrekari gisa	275
II.2. XX. mendeko diktadura hispanoamerikarrak: ezaugarriak	276
II.3. Nazio Segurtasunaren Doktrina	277
II.4. Giza eskubideen urraketa	278
III. ZUZENBIDE KOMUNISTA	278
III.1. Stalinek abian jarri zuen SESBeko komunismoa	278
III.2. Mao Zedongek abian jarri zuen txinatar komunismoa	280
III.3. Koreako komunismoa	281
III.4. Kubako komunismoa	282
15. gaia. Munduko ordena berriaren diseinua eta Europaren eraikuntza	
I. MUNDUKO ORDENA BERRIAREN DISEINUA	283
I.1. Bake itunak	283
I.2. Bigarren Mundu Gerraren ondorioak	284
I.2.1. Ekonomian eta gizartean izan zituen ondorioak	284
I.2.2. Politikan eta lurraldean izan zituen ondorioak	285
I.2.3. Ideologian izan zituen ondorioak	286
I.3. Nazio Batuen Erakundea (NBE)	286
I.3.1. NBEren jatorria	286
I.3.2. Nazio Batuen Gutuna	287
I.4. Bigarren Mundu Gerraren ondorengo deskolonizazioa	289
II. EUROPAREN ERAIKUNTZA	291
II.1. Europa batuaren aldeko lehen proiektuak	291
II.2. Bigarren Mundu Gerraren ondorengo proiektuak	292

II.3. Schuman Adierazpenetik seiko taldearen Europara (1950-1957)	295
II.4. Erromako Itunak (1957)	296
II.5. «Britainia Handiko arazoa» eta EEEn handitzea 1973an	297
II.6. Europa baturantz eginiko urratsak eta handitzea: «Hamabiko taldearen Europa» (1973-1986)	298
II.7. Europako Akta Bakarra eta Europar Batasunaren Tratatu egiteko bidea	299
II.7.1. Europako Akta Bakarra (1986)	299
II.7.2. Europar Batasunaren Tratatu lortzeko bidea (1986-1992)	300
Bibliografia	303

Hitzaurrea

Iraunkorra edo aldaezina den arren, zuzenbidea, gizakiak sortu duen kultura den heinean, gizartearekin batera aldatzen joan da historian zehar. Esku artean duzun testuliburu honek Zuzenbidearen Historiaren oinarri esanguratsuenak biltzen ditu, eta harreman juridikoen denboran eta espazioan izan duten garapena aztertzen du. Mendebaldeko sistema juridikoak ulertzeko beharrezkoa da zuzenbidearen historiaren gakoak interpretatzeko gai izatea eta, beraz, jakintza arlo hau ezinbestekoa da jurista baten formakuntzan. Jurista gehienek arreta zuzenbide positiboan jartzen badute ere beren eguneroko lanean, etorkizuneko juristek zuzenbidearen eta erakunde juridikoen bilakaera historikoa ulertu behar dute, modu zintzoan eta profesionaltasunez garatzeko beren lan praktikoa.

Zuzenbidearen historiaren jakintza arloa hain zabala dela kontuan hartuz, testuliburu hau osatzeko gai batzuk bereizi ditugu Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) Zuzenbide ikasketak egiten ari diren ikasleentzat batez ere. Horretarako, urtetako lana borobildu dugu, Gregorio Monrealek hasitako lanari bidea emanez, eta zuzenbidearen historiaren testu klasikoan azterketarako zertzelada batzuk gehituz, Nafarroako historian garrantzitsuak izan diren gertakizun eta prozesuei dagozkienak. NUPeko ikasketa planetara egokitu dugu gai zerrenda, eta gertaera historiko juridikoak gaur egungo garairaino ekarri ditugu.

Liburuak hamabost gai dauzka, eta hurrenkera kronologikoari jarraitzen dio oro har. Lehenengo gaiak zuzenbidearen historiari sarrera egiten dio, zuzenbidearen iturriak jorratzen ditu eta Mendebaldeko sistema juridiko nagusien aipamena egiten du. Bigarren gaitik aurrera, eta seigarren gaira arte, ikasgaiaren lehen gai multzo handia garatzen da; zuzenbide erkideari (*ius commune* izenekoari) eta Erregimen Zaharrari dagokiona, hain zuzen ere. Bigarren gaian zuzenbide erlijioso nagusien bilakaera eta iturriak azertu ondoren, hirugarren gaiak Goi Erdi Aroa jorratzen du, garai historiko horretako gertakari historikoak eta zuzenbidearen iturri nagusiak aztertuz. Iberiar penintsulako historian jartzen du arreta hirugarren gai horrek, eta zuzenbidearen garai hartako iturri nagusiak, ohiturak, eta gakoak aztertzen ditu. Laugarren eta

bosgarren gaiak zuzenbide erkidearen eraketa eta harrera nolakoa izan zen lantzen dute. Laugarren gaiak zuzenbide erromatarren eta kanonikoaren bilakaera historikoa eta teorikoa azaltzen du; bestela esateko, *ius commune* zeuzkan oinarrien garrantzia aztertzen du. Bosgarren gaiak, bestalde, Iberiar penintsulan zuzenbide erkidea barneratzeko prozesua aztertzen du. Gai horretan, halaber, Nafarroako erresuman nolako harrera prozesua izan zuen azaltzen da. Seigarren gaiak ere badu Nafarroari buruzko atal bat. Gai horretan hasten gara lantzen Aro Modernoa eta Erregimen Zaharraren barnean izandako gertakari historiko nagusiak. Iberiar penintsulako ordenamendu juridikoetan izan ziren aldaketak ikertzen dira, eta bereziki bi gertakari jartzen da arreta: Nafarroaren konkistan eta Ondorengotza Gerrak Espainiako estatuan izan zituen ondorio juridikoetan (Oin Berriko Dekretuei erreparatuz).

Zazpigarren gaiarekin batera hasten da bigarren gai multzoa. Multzo horretan (7. gaitik hasi, eta 11. eraino) aztertzen da Ilustrazioaren doktrinaren eragina liberalismo juridikoan. Zazpigarren gaian Ilustrazioaren eragina eta iusnaturalismo arrazionalistaren gako teorikoak eta autore nagusiak lantzen dira, eta zortzigarren eta bederatzigarren gaitan, berriz, doktrina horren eraginez izan ziren hiru Iraultza liberalak: Britania Handiko iraultza, Estatu Batuetako independentzia prozesua eta Frantziako Iraultza. Bederatzigarren gaiak Frantziako konstituzionalismoa jorratzen du eta, horrez gainera, prozesu horrek Espainiako estatuan izan zuen eragina. Kodifikazioari buruzkoa da hamargarren gaia, hau da, Ilustrazioak zuzenbideari egin zion ekarpen esanguratsuari buruzkoa. Kodifikazio liberalen bilakaera lantzen da, Espainiako kodifikazio prozesuan arreta berezia jarritz. Halaber, foru eskubideei buruzko hausnarketa ere egiten da gai horretan. Azkenik, hamaikagarren gaiak bigarren gai multzoa ixten du, eta konstituzionalismoa nazioartean aztertzen du. Gai horretan XIX. mendeko nazioarteko ordena berria jorratzen da, kolonialismoari eta iraultza liberaleri bereziki erreparatuz. Euskal foruei ere erreparatzen zaie, gerra karlisten testuinguruan izandako aldaketa juridikoak aztertuz.

Gai zerrendak duen hirugarren multzoan gertakari eta kontzeptu asko biltzen dira, baina batez ere liberalismoari egin zaion kritika juridikoa eta politikoa, eta horrek dituen ondorioak. Aro Garaikidearen oinarri historiko eta juridikoak lantzen dira azken multzo honetan. Liberalismoaren aurkako kritiken analisisa egiten du hamaikagarren gaiak, industria iraultzaren testuingurua kontuan hartuz. Hamahirugarren gaiarekin batera hasten da XX. mendeari buruzko lanketa, eta Lehen Mundu Gerraren garaitik Espainiako II. Errepublikaren garaira arte iristen den aldiaren gertakari nagusiak azaltzen dira. Gertakari horien artean dago, gainera, Kataluniako, Euskal Herriko eta Galiziako estatutuen genesis. Hamalaugarren gaian XX. mendeko erregimen totalitarioekin eta zuzenbide komunistekin zerikusia duten kontzeptuak azaltzen dira. Francoren diktadura bereziki sakontzen den arren, beste diktadura faxistei buruz ere hitz egiten da (Alemania eta Italia, kasu). Era berean, Latinoamerikako diktaduren berezitasun juridikoak eta politikoak aztertzen dira, eta azken atalean zuzenbide komunistaren zehaztasunak ematen dira (besteak beste SESBeko, Kubako eta Koreako

zuzenbideenak). Azken gaiak, hamabosgarrenak, II. Mundu Gerraren ondoren sortu zen nazioarteko ordena berria aztertzen du, arreta bi gai nagusitan jarritz: Nazio Batuen Erakundearen sorreran eta Europaren eraikuntzan.

Testuliburu honek, beraz, garai historiko luzea hartzen du. Hala ere, garai bakoitzak zuzenbidearen historiari ekarri dizkion alderdi esanguratsuak ere jorratzen ditu, modu sintetikoan bada ere, zuzenbidea ikasten ari diren ikasleentzat oinarrizkoak diren kontzeptuak labur azalduz eta etorkizuneko juristen oinarri historiko- juridikoak sendotuz. Izan ere, zuzenbidearen historiak ematen dizkigu gaur egungo sistema juridikoak, politikoak eta sozialak ulertzeko testuingurua eta gakoak. Legeak, erakundeak eta sistemak iraganen nola aldatu ziren ulertzen badugu, gainera, aukera izango dugu etorkizunari begira sistema horiek hobetuko dituzten ikuspegiak eta tresnak zein diren ikasteko. Laburbilduz, esku artean duzun liburu honek helburutzat dauka etorkizuneko juristen baitan historiarekiko grina piztea eta zuzenbidearen historiaren ezagutzan sakontzea.

1. gaia

Historia eta zuzenbidea.

Zuzenbidearen iturriak. Mendebaldeko sistema juridiko nagusiak

I. HISTORIA ETA ZUZENBIDEA

I.1. Historia, Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Historia

Bai Historia, eta bai Zuzenbidea ere, bi irakasgai zabal dira, eta ezaugarri eta metodologia partikularrak dauzkate. Bestalde, Zuzenbidearen Historia ere badugu, zuzenbidearen garrantzi historikoa aztertzen du, eta etorkizuneko legelariak prestatzeko irakasten da.

I.1.1. Historia

Gizarteen iragana aztertzen duen jakintza da historia. Zientzia den aldetik, historiografiak gizakien iraganeko gertaerak aztertzen ditu; metodo arrazionalen bidez.

Historiografiak gertaera historikoa aztertu behar du, eta gertaera horren inguruko-esparru orokorra. Historiografiak bilakaera luzea izan du zientzia gisa. Erdi Aroko historiografiak itxura akritikoa eta apologetikoa zeukan, eta harrigarria, heroi-koa eta mirarizkoa zena nagusitzen zen. Aro Modernoan, nolabaiteko kritika gehitu zioten, baina bere diskurtsoak gertaera politikoen, diplomatikoen, militarren eta erlijiozkoen kontaketa jarri zuen arreta. XIX. mendean, Alemaniako historiografia positibistak objektibotasun historikoa lehenetsi zuen, nahiz eta aztergaia gertaeren historia zen artean. XIX. mendeko historiografiak beste ekarpen bat egin zion: historia sozialean jarri zuen begirada; izan ere, Karl Marxek klase sozialen azterketa, azpiegitura eta ekoizpen bideen sorrera eta banaketa nabarmendu zituen, alderdi horiek eragina baitute gizartearen.

XX. mendearen ezaugarria iragana kontatzeko modu berria izan zen. Bigarren Mundu Gerratik aurrera, Annales izeneko eskolak beste kezka bat ekarri zuen: egitura eta errealitate historiko konplexuen oinarri eta adierazle bihurtzeko gai ziren eredu

berriak, multzoen eraketa mentalak eta kontzeptuzko irudikapenak bilatzeko kezka. XX. mendearen bigarren erdiaren bukaeran, bateratu egin ziren historiografia eta beste zientzia historiografiko batzuk –besteak beste, zuzenbidearen historia bera– eta uste demografiko, ekonomiko, sozial eta kulturaletan ere oinarritu zen, gainera. Horregatik zenbaitek historia osora iristeko hurbilketa ikusi du horretan.

Oraindik zabalik dago objektibotasun historiografikoa desiragarria edo posiblea izateari buruz XIX. mendean piztu zen eztabaida, zeren eta historia osorik ezagutzeko ezintasunari gehitu egiten baitzaio iragana interpretatzeko orduan historialariak berak duen partaidetza edo iritzi pertsonala. Oraindik ere askotan entzuten da Voltairek nola definitu zuen historia: «benetakotzat jotzen diren gertaeren kontaketa»; hala, mitoen eta alegien faltsutasunetik bereizi zuen historia. Garai hartan, historialariak hartu zuen rol nagusia, dokumentaziotik eta bestelako iturrietatik abiatuta gertaera historikoa eratzeko gaitasuna nabarmendu baitzen. Baina iturriak ez dira kutsurik gabeak, eta, beraz, historialariaren lana ez da besterik gabe dokumentuak irakurtzea eta berriz idaztea: historialariak dokumentazioa interpretatu egin behar du, eta benetako gertaeretara eraman behar gaitu, iragana berritzeko. Ezin dugu ahaztu litekeena dela historialaria ikusmolde jakin batek kutsatua egotea edo boterearen egiturek sortu duten dokumentazioak ikuspegi jakin bat adieraztea edo, beharbada, ikuspegi hori nahita faltsutua izatea. Beraz, historialariak kritikoki aztertu behar du dokumentazio hori.

Egia esan, historiografian erabakigarria da benetakoa edo historikoa dena eta faltsua dena bereiztea. Errealitate horrek, ordea, ez gaitu itsutu behar, batez ere gertaera historiko mitifikatua egia eztabaidea zintzat jo izan bada historia osoan, eta mitifikazio hori ibilbide luzeko ohituren euskarria izan bada –gure kasuan, arlo historiko-juridikoko ohituren euskarria–. Ekar dezagun hizpidera Nafarroa, adibidez, eta har ditzagun adibide gisa Sobrarbeko Foruak –Nafarroako eta Aragoiko zuzenbidearen oinarri apokrifoak direnak, nahiz eta ez ziren sekula existitu–, XI. eta XII. mendeetako tokiko foru asko –neurri handian tartekatuak edo faltsutuak daudenak–, Iruñeko elizbarrutiaren jatorria –ustez San Ferminen sortua, zeina ez baitakigu ziur existitu ote zen, historiak azaltzen duen moduan behintzat– edo XIII. mendetik eta ia XIX. mendera arte euskaldunen jatorri biblikoa egia eztabaidea zintzat jo zuen tradizio historiografiko euskal iberista luze-luzea. Orain, azter ditzagun gehixeago adibide horietako bi: Sobrarbeko Foruak eta Iruñeko elizbarrutiaren jatorria.

Bai Tuterako Foruak bai Nafarroako Foru Orokorren hitzaurreak (XIII. mendekoak dira biak) jasotzen dute, Sobrarbeko ustezko Foruetan oinarrituta, nola jarri zuten musulmanek Espainia [= Iberiar penintsula] galzorian. Erregerik ez zuten hirurehun menditar antolatuta omen ziren Aínsako eta Sobrarbeko mendietan, eta, haien artean arazoak sortu zirenez, enbaxadak bidali omen zituzten Erromako Aldébano aita santuarengana eta Lonbardiara eta Frantziara. Haiek aholku eman zieten errege bat behar zutela zaldunak gidatzeko, aurretik idatziz jaso behar zutela nolako foruak edukiko zituzten, eta erregeak zin egin behar zuela foruak beteko zituela. Hala egin omen zuten: askatasunak edo foruak idatziz jaso, eta, foruei buruz zin egin ondoren,

errege aukeratu zuten zaldun haietako bat. Hori dela eta esaten da bai Nafarroan, bai Aragoi, erregeen aurretik izan zirela legeak. Mitoa *Liber Regum* izenekotik zetorren, hots, 1200. urtearen inguruan nafar-aragoieraz idatzitako erromantze batetik. Istorioari gero eta xehetasun eta ñabardura gehiago erantsi zitzaizkion Erdi Aroaren amaieratik aurrera, eta Aro Modernoan polemika historiografikoa sortu zen bai Nafarroan bai Aragoi: bi erreinuetatik zein ote zen zaharrena.

Iruñeko gotzainen egoitzaren jatorria ere apokrifoa da. Mendebaldeko Europako eliza kristauen kasu askotan, kristautzearen hasierari eta tokiko elizen sorrerari ospe handiagoa eman nahian, biografoek Testamentu Zaharreko edo Berriko pertsonaiekin lotzen zuten batzuetan haien jatorria, eta, izan ere, zuzenago esateko, Kristorekin berarekin ere bai. Hori gertatu zen, hain zuzen ere, Iruñeko Erresuman eta Iruñeko elizbarrutian San Saturninorekin. San Saturnino baskoiak ebanjelizatzaera etorri omen zen, eta San Fermin bataiatu omen zuen –beste bertsio batzuen arabera, San Honesto dizipuluak bataiatu zuen–. San Fermin izan omen zen gotzain izendatu zuten lehen iruindarra. Mitoa Amiensen sortu zen (Frantzia), eta Iruñera ez zen 1186ra arte iritsi. Amienseko mitoaren arabera, Nafarroaren kristautze prozesua III. mendean gertatu zen; hemen, ordea, kontakizunari buelta eman zitzaion, eta I. mendean gertatu zela zabaldu zen. Halatan, San Juan Bautistari eskatu omen zioten San Saturnino bataia zezala (hark Jesu Kristo bataiatu zuen), eta San Pedro apostoluari gotzain izenda zezala. Saturnino Tolosako (Frantzia) gotzain izan zen, baina ez zen inoiz Nafarroan egon; San Fermin, berriz, ez zen existitu ere egin.

1.1.2. Zuzenbidea

Ez dago zuzenbidearen kontzeptu balioudun orokorrik, ez baitauka definizio argirik, ez eta definizio bakar bat ere. Ikuspegi bakoitzak, dela zientifikoak, dela ideologikoak, dela erlijiosoak, zuzenbidearen bere interpretazioa ematen du.

Ikuspegi instrumentaletik begiratuta, esan genezake indar loteslea duen antolaketa soziala dela. zuzenbidea egon badago, eguneroko errealitatea da, baina historian zehar bere bilakaera izan du. Horregatik, zuzenbidearen gaur egungo ikuskera mugatzea funtsezko baldintza da haren historia ezagutzeko.

Erromako *ubi societas, ubi ius* esaerak ('gizartea non, zuzenbidea han') argi eta garbi islatzen du giza jokabidearen arauketa juridikoa, hau da, gure espeziea planetako gaine-rako izaki bizidunengandik bereizten duen ezaugarria. Gizakia izaki soziala da berez, eta ezarritako ordena soziala babestu nahi duten arauak agintzen dute gizarte guztietan. Ordena soziala, gainera, pertsonen jokaera zuzenerako erdua eta erakusgarria ere bada. Norbaitek aurretik ezarri diren arauak hausten dituenean, bere borondatea gaine-rako pertsonen borondatearen gainetik ezarriz, ordena juridikoa urratu dela jotzen da. Hori dela eta, zuzenbidea estu lotuta dago hertsatzen duten elementuekin, eta horrek zuzenbidearen eta boterearen artean barne-barneko erlazioa dagoela adierazten du. Izan

ere, nork sortzen ditu arauak? Hori egiteko adinako boterea duten gizabanakoek. Gaur egun sortzen diren gatazken konponbideak gizarte jakin bateko klase nagusien asmoen eta interesen isla argia dira oraindik ere, nahiz eta azken bi mendeetan herri-klaseak protagonista izan dituen borroka sozialak aurrerapenak lortu dituen. Francisco Tomás y Valientek «Zuzenbidea boterea da» esan zuenean, ongi laburbildu zuen errealitate hori.

Arau berri bat agertzen bada, gizarte bat osatzen duten gizabanakoen artean sortzen diren premiei eta interesen gatazkei erantzuteko da. Gauzak horrela, arau juridikoak harreman sozial horien ondorio izaten diren gatazkak arautzeko ezartzen dira, pertsonen artean sortzen diren interesen gatazkak konpontzeko. Aldi berean, interpretatu eta aplikatu egiten dituen gizartetik datoz arauak; gainera, denborak aurrera egin ahala, gizarteak zabaldu, murriztu edo indargabetu egingo ditu agian arau horiek. Hori dela eta, oso garrantzitsua da gertaera juridikoa ikuspegi historikotik hausnartzea, harreman sozialak dinamikoak direlako beste ezer baino lehen. Era berean, zuzenbidea gizarte batean nagusi diren ideologiaren eta balioen isla da, eta ekintza sozial zuzenaren ereduaz baliatzen da.

Historian zehar, ordena sozialaren ideia nagusitu da zuzenbidearen kontzeptuan. Ordena horrek bakea eta justizia dakartza (bake sozialaren eta zuzenbidearen oinarria). Zuzenbidearen eta erlijioaren arteko erlazioa hautsi zenean, harreman hori aldatu egin zen, eta, horren ondorioz, beste oinarri arrazionalago batzuk bilatzen hasi ziren. Alabaina, bizitza sozialaren beste arauaketa batzuekin batera egon da zuzenbidea historikoki, hala nola erlijioarekin, moralarekin edo ohitura sozialekin, eta zaila izan da haietatik bereiztea. Izan ere, gizabanakoen etikatik datozen arau moralak legeetan eta kodeetan ezartzen diren arau juridikoekin nahastu izan dira historikoki. Hala-ber, badaude ohitura sozial batzuk, moral sozialak berak garai eta toki jakin batzuetan ekarri zituenak. Hona hemen ohitura sozialen zenbait adibide: kortesia arauak, bizikidetzak-moduak eta janzkerak. Horiek ere arau juridikoekin nahasteko joera izan dute historikoki. Hortaz, zaila izanik ere, ikuspuntu historikotik begira, bereizi egin behar dira arau motak, arreta batez ere arlo juridikoan jartzeko.

Horrez gain, zuzenbidearen konplexutasuna dela eta, ikasi dutenak edo behar bezalako prestakuntza dutenak bakarrik izaten dira gai haren zailtasun teknikoa kontrolatzeko edo zuzen interpretatzeko. Herritar arruntek arau bakun batzuk, egunerokoak eta konplexutasun tekniko-juridiko berezirik gabeak, ulertzen dituzte oro har.

Zuzenbideari lotzen zaion kontzeptua da beste hau ere: instituzio juridikoak. Zuzenbidea harreman sozialak arautzeaz arduratzen da, eta instituzioak deitzen diren organoen bidez egiten du hori. Harreman sozial homogeneoek osatzen dituzte instituzio juridikoak, eta esparru juridiko-arauemaileak arautzen ditu harreman horiek. Edo, bestela esanda, instituzioen formak –hau da, arau juridikoak– eta edukiak –harreman sozial homogeneoak– multzo banaezina osatzen dute, eta instituzioaren kontzeptua sorrarazten du horrek. Zenbait adibide adierazgarri ekarriko ditugu hona: unibertsitatea, parlamentua, familia, ezkontza... instituzio dinamikoak dira, eta bilakaera handia izan dute historian, gizartetik beretik ondorioztatzen diren aldake-

ten eraginez. Beraz, harreman sozialak instituzioen eragile dinamikoak dira; araua, aldiz, haiek egonkortzen dituen elementua, Tomás y Valientek adierazi zuen bezala. Zuzenbidearen historialariok instituzio bakoitza arautzen duten arauen erabilgarritasun praktikoa aztertzen dugu eta haiek aplikatzeko modua. Hortaz, iraganean aplikatzen ziren araeuz gain, horiek aplikatzeko metodoa ere ezagutu behar dugu.

1.1.3. Zuzenbidearen historia: izaera eta metodo zientifikoa

Zuzenbidea egonkorra eta aldaezina da itxura batean, baina gizartearen bilakaerak berak aldatzen duen fenomeno da egiaz, gizakien sorkuntza kulturala den aldetik. Zuzenbidearen historiak harreman juridikoak denboran eta espazioan nola garatu diren aztertzen du: zuzenbidea aztertzen du garai zaharrenetatik gaur egunera arte.

Beraz, zuzenbidea aldatu egin daiteke denboran, nahiz eta egonkortasuna behar duen bere segurtasunari eusteko. Hori dela eta, erritmo juridikoa erritmo soziala baino geldoagoa da, baina aldatu egin behar du aldaketa politikoetara, ekonomikoetara, sozialetara, kulturaletara edo teknikoetara moldatu nahi badu. Badira zenbait instituzio juridiko, oso aldakorrek direnak –bereziki zuzenbide publikoari lotuta daudenak–; beste zenbait, berriz, astiro-astiro aldatzen dira –gehienbat zuzenbide pribatuari lotuta daudenak–. Horren adierazgarri da zeinen finkoak diren *ius communeren* bidez jaso den erromatar zuzenbidearen instituzio pribatuak.

Iraganeko zuzenbidea historikoki ulertu zenean sortu zen zientzia gisa zuzenbidearen historia eta hori ezagutzeko metodo historiko-kritikoa aplikatu zenean. Hainbat liburu idatzi dira, eztabaidagai dutenak zuzenbidearen historia aztertzean ikuspegi historikoak edo juridikoak nagusitu behar ote duen. Jesús Lalindek konpondu zuen eztabaida hori bi aldeko zientzia zela baieztatu zuenean, hau da, aldi berean zientzia historikoa eta juridikoa zela esan zuenean. Zuzenbidearen historiak izaera mistoa duenez, zuzenbidearen historialaria behartuta dago bai teknika historiografikoak eta bai esparru juridikokoak kontrolatzera. Horrez gain, XX. mendeko bigarren erdialdean eta XXI. mendean, historiografia orokorrak diziplina historiko guztiak bateratzeko joera izan zuen, eta zuzenbidearen historia ez zen joera horretatik kanpo gelditu. Horregatik, XX. mendearen erdialdean, Heinrich Mitteisek gure diziplinaren helburuaren eta aztergaiaren dualtasunari buruz hitz egin zuen. Helburuari dagokionez, alderdi juridikoa eta alderdi historikoa hartzen ditu barnean zuzenbidearen historiak, baina, hori ulertzeko, garaian-garaiko esparru soziala, ekonomikoa, kulturala eta abar ezagutu behar dira nolabait. Metodoaren dualtasunari dagokionez, berriz, metodo historiko-juridikotik abiatu behar dugu, baina egiten dugun ikerketaren helburua zein den, horren arabera gailendu behar da alderdi historikoa edo juridikoa, betiere beste metodo osagarri batzuk baztertu gabe (adibidez, ekonomia, soziologia edo antropologia arloei dagozkienak); izan ere, metodo horiek ezin dira inola ere oztopo izan ikerketarako, eta ez dute urrundu behar benetako aztergaia, hots, iragan juridikoa.

Zuzenbidearen Historia irakasteko, sentsibilitate juridikoa izan behar da, eta garai historiko bakoitzeko terminologia, instituzioak eta dogmatika juridikoa zehatz erabili. Horregatik, diziplinan askotan baieztatzen da Francisco Tomás y Valientek esan zuena: «Zuzenbidearen historialariak, historialaria ez ezik, legelaria ere izan behar du». Historialaria eta jurista izateak, gainera, zuzenbide positiboaren oinarri historikoak behar bezala azaltzeko ahalmena ematen du. Orotariko historialari batek nekez egingo du halako azalpen zehatzik, batez ere zuzenbide pribatuaren alorrean. Ikerketaren helburuari eta metodoari buruzko doktrinaren inguruko eztabaidak alde batera utzi eta diziplinaren irakaskuntzari begiratzen badiogu, badirudi komenigarria dela jarrera pragmatikoa eta posibilista hartzea, non zuzenbidearen historiaren izaera juridikoa izango den nagusi. Izan ere, Alfonso García-Gallok adierazi zuen bezala, gure irakasgaia etorkizuneko legelariak prestatzera bideratuta dago. Horrekin batera, esan behar da zuzenbide positiboa dela ikasle gehienen helburu intelektualaren eta profesionalaren esparrua eta, horren ondorioz, gure irakasgaiaren Europako ikasketa planetan gero eta lehentasun handiagoa ematen zaiola *iragan minimoari* –Pio Caroniren hitzak erabiliz–, egungo zuzenbidearen oinarri eta aurrekari zuzena baita.

Zuzenbidearen historiari esker, egungo erakundeen bilakaera historikoa ezagutzen da, eta errazago ulertzen da haien esanahia. Azken batean, baliagarria da iraganeko zuzenbidea eta instituzio juridikoak hautatzeko eta antolatzeke (haien sekuentziak, kausak, eraginak edota emaitzak aztertzen baititu) eta, hortaz, zuzenbide positiboa konfiguratzeko eta, neurri batean, hura justifikatzeko. Justifikazio hori, jakina, ez da morrontza etiko edo politiko gisa hartu behar, zuzenbide positiboari dagokion sistema juridikoaren, politikoaren eta sozialaren azalpen gisa baizik... Beraz, gure diziplinak orainaldiari buruzko informazioa emateko balio du, baita gogoetarako ere, zuzenbidearen analisi historikoa egiteko elementuak ematen baitizkigu.

I.2. Zuzenbidearen historiaren xedea

Zuzenbidearen historiaren xedea ikertzaileak lortu nahi dituen asmo edo helburuei dagokie, eta horiek lortzeko erabiltzen dituen prozedurei ere bai. Zuzenbidearen historiaren xedea aztertzeke, ezinbestekoa da alderdi materiala, espaziala (muga geografikoak) eta kronologikoa (zuzenbidearen historiako aldiak) mugatzea.

I.2.1. Alderdi materiala mugatzea

Zuzenbidearen historia lege multzoen, instituzio juridikoen eta pentsamendu juridikoaren historia gisa ulertu da, nagusiki. Esparru horietan aztertzen dira zuzenbidearen iturri tradizionalak (hala nola legeak, usadioak eta ohitura sozialak), eta garrantzi handiko datu juridikoak edukitzen dituzte historialariarentzat, zuzenbidearen

jurisprudenziari eta printzipio orokorreari begiratzen badiegu. Nolanahi ere, badira beste ikerketa-esparru batzuk ere, adibidez, hondar arkeologikoak, artea eta literatura.

Lege multzoen historia da tradizio luzeena duena, eta legeen arloko testu historiko-juridikoak aztertzen ditu, baita usadioari buruzkoak ere. Iturri juridiko nagusien analisi hori jurisprudentzia arloko testuekin osatzen da.

Instituzio juridikoak banan-banan aztertzen dira, bai zuzenbide publikoaren ikuspuntutik (erregea, erresuma, gorteak eta abar), bai zuzenbide pribatuaren ikuspuntutik (ezkontza, oinordetzak, etab.).

Pentsamendu juridikoaren historia edo doktrina aldi kronologiko espezifikoetara lotua aztertu da gehienbat (Errenazimentua, Ilustrazioa eta abar).

Bada beste esparru bat, ia landu ez dena: paremiologia. Eduki juridikoa duten esaera zaharren analisisan oinarritzen da (adibidez, *Eman eta kendu*, *Jangoikoari hanka bat kendu*).

Horren harira, zuzenbidearen eta erlijioaren arteko erlazio historikoa dela eta, bereizi egin behar da ditugu zuzenbide erlijioso baten eta bestearen ondorio diren antolamendu juridikoak. Mendebaldean, judaismoa, kristautasuna eta erlijio musulmana dira zuzenbide erlijiosoak, bai eta XVI. mendetik aurrera Erreforma protestantearen ondoren sortu ziren elizak ere.

1.2.2. Alderdi espaziala mugatzea

Zuzenbidearen historiaren azterketa geografikoaren helburua mundu mailakoa, Europakoa, nazionala, eskualdekkoa, lokala... izan daiteke. Ahaleginak egin dira Zuzenbidearen mundu mailako historia osatzeko, oinarri kritiko berri batzuk oinarritzat hartuta, oraindik orain arloari buruzko historiografia finkatu gabe egon arren. Europako historia juridikoa, azken urteotan landu da batez ere, *ius commune* obra du abiapuntua, eta zuzenbideko pentsamendu naturalista modernoaren ekarpenekin aberasten da.

Nolanahi ere, nazio bakoitzeko historiografia lehenetsi da tradizio zientifikoan. Espainiako zuzenbidearen ohiko aztergaia Espainiako estatua gaur egun osatzen duten erresumetara zegoena zen; horiek horrela, noiz edo noiz hedatu izan da aztergaia, eta multzo handi bat osatu zuten lurraldeak ere barne hartu ziren, esaterako, Nafarroa, Aragoiko Koroaren Italiako lurraldeak, Latinoamerika, Portugal, Herbehereak eta abarrak. Espainiaren historiari dagokionez, Alfonso García-Gallok esan zuen bezala, zehaztugabetasun historiko handia egon da, irizpide politikoaren, geografikoaren, linguistikoaren eta beste irizpide batzuen kariaz; gainera, «ez zaio beti lurralde berari deitu Espainia, eta ez da antolaketa politiko bera egon esparru berean; bestalde, ez dago arraza espainiarrik, eta ez da beti gaztelaniaz hitz egin lurraldean». Beraz, Iberiar penintsulan bizi izan ziren herrien aniztasun etnikoa, kulturala eta politikoa du bereizgarri *espainiar* adjektiboak arlo juridikoan, besteak beste, sortu zen pluraltasuna dela kausa.

Espainiaren mundu mailako monarkia osatu zuten erresumen, jaurerrien eta konderrien berezitasun juridiko-instituzional horrek historiografia asko sortu ditu, bakoitza lurralde batean espezializatua. Horren ondorioz, Gaztelako, Nafarroako, Aragoiko, Kataluniako, Valentziako, Mallorcako, Siziliako, Napoleseko eta hainbat lekutako zuzenbideari buruzko historiak daude. Baina batzuetan historiografia gaur egungo muga administratiboak oinarritzat hartuta egiten da, muga politikoen aldaketa historikoak aintzat hartu gabe. Nafarroa adibide paradigmatikoa da. Liburu askotan ikusten da nola dagoen idatzia Nafarroako historian muga berak izango balituzte bezala erresuma zaharrak eta XX. mendearen amaieratik hona daukagun gaur egungo Nafarroako Foru Komunitateak. Hori are deigarriagoa da, errealitate historikoen irudidun kartografiari begiratzen badiogu. Ezin da Erromako historia ikasi Kalagurri (Errioxa) edo Oiasso (Gipuzkoa) enklabe baskoien garrantzia aintzat hartu gabe; ezta Erdi Aroko Historia ikasi ere, kontuan hartu gabe zenbait garaitan Errioxako, Arabako, Gipuzkoako eta Durangoko lurrak Iruñeko edo Nafarroako erresumaren barnean egon zirela, edota zenbateko garrantzia izan zuen XII. mendearen amaieratik aurrera bortuez bestaldekoak gehitu izanak.

Amaitzeko, badago beste muga espazial bat, kontuan hartu ohi ez dena eta zuzenbide historikoan funtsezko garrantzia izan zuena: elizbarrutiaren mugak, hau da, eliza-auzitegiei aritzeko jurisdikzio muga jartzen zietenak. Alde horretatik, eta Nafarroako adibidearekin jarraituz, gogoratu behar dugu historian zehar muga politikoak ez datozela bat Elizak Erdi Aroan zituen mugekin, gaur egun daudenekin edota XIX. mendean zeudenekin, nahiz eta pixkanaka-pixkanaka muga horiek homogeneizatzen joan ziren, 1953ko Konkordatuaren ondorioz parekatu eta gaurko egoerara iritsi arte.

Egungo historiografia estatalistak kutsatuta, askotan ahaztu egiten zaigu Erregimen Zaharreko pertsonentzat garrantzitsuagoa izatera iristen zela Elizaren jurisdikzioa jurisdikzio zibila baino. Izan ere, familiako zuzenbideari buruzko kontu gehienak Elizaren jurisdikzioaren barnean epaitzen ziren, eta elizbarrutiko auzitegiek edozein delitu epai zezaketen zuzenbide kanoniko izenekoaren bidez. Jakin badakigu Gipuzkoako gaizkile askok hala eskatzen zutela, elizbarrutian epaituak izatea, Gaztelako justiziatik alde egiteko eta Iruñeko elizbarrutiko auzitegietan epaituak izateko.

1.2.3. Alderdi kronologikoa mugatzea

Zuzenbidearen historialariari dagokion lana da toki eta denbora jakin batean gertatu denaren bilakaera ezagutzea eta nabarmentzea zergatik gertatu ziren aldaketak testuinguru horretan eta nolako intentsitatearekin. Gertaera historiko askok eragin dezaketen nahaspila saihesteko, beharrezkoa da esparru kronologiko zehatz baten barnean jartzea, eta horrela zuzenbidearen bilakaera orokorra hobeki ulertzeko moduan jartzea, nahiz eta sinplifikazio horrek zientzia juridikorako oso interesgarriak diren aldiak itxuragabetzen dituen, adibidez, trantsizioak.

Zuzenbidearen Historiak Mendebaldeko historiografia orokorraren periodifikatze berari jarraitzen dio eskuarki; esan nahi baita, aldi hauek jasotzen dituela: Historiaurrea, Protohistoria, Antzinatearen Historia (azken aldiari Antzinate berantiarra deitu ohi zaio eta Hispaniako aldi bisigotikoarekin bat dator), Erdi Aroko Historia (Erdi Aro goiztiarra, osoa eta berantiarra), Historia Modernoa eta Historia Garaikidea. Eskema hori oso baliagarria da instituzio politikoak eta administratiboak eta, beraz, zuzenbide publikoa aztertzeke. Nolanahi ere, gogoan izan behar dugu posible dela espazio subiranoaren arabera aurreratzea edo atzeratzea garai jakin baten hasiera eta amaiera, Gaztelako Erdi Aroa Granadako konkistarekin edo Amerikaren aurkikuntzarekin (1492) amaitu zen, eta handik aurrera Aro Modernoa hasi zen. Nafarroa Garaian, ordea, aldaketa Gaztelak Nafarroako erresuma konkistatu zuenean (1512an) edo Gaztelako Koroak anexionatu zuenean (1515ean) egin zuten. Europako Aro Garaikidea 1789an hasi zela finkatu izan da, Frantziako Iraultzaren urtean, Espainian 1808. urtera arte (Independentziako Gerra, Baionako Konstituzioa) edo 1812. urtera arte (Cádizko Konstituzioaren urtera arte) atzeratzen bada ere aro horren hasiera.

Periodifikatze klasikoa ez dator bat zuzenbide pribatuaren historiak duenarekin, *ius commune* obrak barne hartzen duen aldia oso luzea delako (Erdi Aro osoa eta Erdi Aro berantiarra eta, halaber, Aro Modernoa), eta oso zabala espazioa.

II. ZUZENBIDEAREN ITURRIAK

Askotan zuzenbidearen iturriak esamoldea erabiltzen da Erdi Aro berantiarretik aurrera Espainiako edo mendebaldeko Europako zuzenbideek izan zuten bilakaera aztertzean. Monografia hau batez ere zuzenbidearen iturri formalen historian oinarritzen denez, lehenik eta behin zehaztu behar da zertaz ari garen.

Zuzenbidearen iturriak esamoldeak bi adiera izan ditzake, gutxienez: zuzenbidearen benetako iturriak, batetik, eta zuzenbidearen iturri formalak, bestetik. Zuzenbidearen iturriei dagokienez, interesgarria izaten da zuzenbide zibilaren gidaliburu edo itun gehienek hitzaurrea aztertzea.

II.1. Iturri materialak edo benetakoak

Zuzenbidea osatzen laguntzen duten faktoreak dira. Galdera honi erantzuten diote: nondik dator zuzenbidearen arau hori? Benetako iturriak askotarikoak dira, erlijioaren edo filosofiaren ikuskeraren arabera: naturaz gaindiko indarrak, mistikoak, jainkotiarrek; justiziaren, ekitatearen eta gizarte ongizatearen kontzeptuak; faktore geografikoak, sozialak, ekonomikoak, politikoak, soziologikoak eta abar; eta aurreko garaietako zuzenbidea eta atzerriko zuzenbideak.

II.2. Iturri formalak

Garai jakin bateko talde soziopolitiko jakin batean zuzenbidea eratzeko erabiltzen diren tresnak dira. Era berean, zuzenbidearen arauak adierazteko moduak edo formak ere badira.

Zuzenbideak iturri formal batzuk dauzka: legea, nazioarteko konbentzioak, ohitura (usadioa), jurisprudentzia, doktrina eta zuzenbidearen printzipio orokorrak.

Iturri formalen artean, legea eta ohitura (usadioa) dira garrantzitsuenak Europako sistema juridikoen bilakaeran eta, askotan, baita beste sistema batzuen bilakaeran ere. Erdi Aro berantiarreko testu askotan, zuzenbidearen multzoari maiz esaten zaio *lex et consuetudo* (legea eta ohitura). Baina zuzenbidearen beste iturri batzuk ere oso garrantzitsuak izan dira garai eta leku batzuetan, adibidez jurisprudentziak eginkizun nagusia izan du Ingalaterran, edota doktrinak, halaber, zuzenbide erromatar kanonikoa hartzeko garaian.

Zenbait legelari ez dago ados jurisprudentzia eta doktrina zuzenbidearen iturritzat hartzearekin, zuzenbidearen agintetzat bakarrik dauzkatelako. Ez gara orain eztabaida horretan sartuko; edonola ere, Europako kontinenteko zuzenbideetan izan duten bilakaeran, egiaztatu dezakegu jurisprudentzia eta doktrina zuzenbidearen ordezkotzat iturriak izan direla bereziki, eta legeak eta ohiturak dituzten hutsuneak beteitzeko erabili direla.

Programan aurrera egin ahala, ohiturek eta legeek lehengo aldietan zein eginkizun izan duten ikusiko dugu, baita doktrinak eta jurisprudentziak izan duten ordezkotzat eginkizuna ere.

II.2.1. Legea

Gaur egungo zuzenbide positiboan, *strictu sensu*, legeak botere legegilearen ekintzak dira (hau da, biltzar legegilearenak). *Latu sensu*, ordea, legeen kategorietako bat baino ez dira; izan ere, lege horiek barnean hartzen baitituzte nazioaren borondate subiranotik zuzenean edo zeharka datozen ekintza guztiak eta giza portaeraren arau orokorrak eta iraunkorrak ezartzen dituztenak. Azken definizio hori ez da egokia zuzenbidearen azterketa historikorako, «nazio» edo «subiranotasun» kontzeptuak ez baitira garai guztietan existitu.

John Gilissenek honela definitu du legea: zuzenbidearen araua edo arauen multzoa da; arau horiek nahiko orokorrak eta iraunkorrak dira, idatzita egon ohi dira, eta neurri handiagoan ala txikiagoan autonomia den talde soziopolitiko batean botere politikoa daukatenez ezartzen dituzte.

XIX. eta XX. mendeetan, honako hau baieztatu zuten Frantziako Iraultzaren pentsamendu juridikoa eta konstituzioak eta, halaber, Bonaparteren garaiko kodeketak

oinarritzat hartu zituzten Europako herrialdeetan: zuzenbidearen iturri formal bakar bat baino ez dago, hau da, legea. Legelariak sortu eta egiten duten zuzenbidea baino ez dago.

II.2.2. Nazioarteko konbentzioak

Nazioarteko zuzenbideak *itun* terminoari bi adiera eman dizkio. Batetik, zentzu zabalean, nazioarteko zuzenbidearen mende dauden bi subjektuen edo gehiagoren borondateen bat etortzea dela ulertzen da, eta ondorio juridikoak sortzen dituela (sortu, aldatu edo ezabatu), edozein dela ere hartzen duen izena (gutuna, protokoloa, konkordatua, hitzarmena, erabakia, akta...). Bestetik, zentzu murriztuagoan, estatuen artean idatziz egiten den eta nazioarteko zuzenbideak arautzen duen nazioarteko akordio orori esaten zaio itun, baliabide baten edo gehiagoren bidez jasotzen bada ere, zein ere den bere zehaztapena. Vienako Hitzarmenak (1969), esaterako, eskatzen du nazioarteko zuzenbideak arautu behar duela akordioa, nazioarteko itun hori zehazteko.

Antzinarokoa da boteregune independenteen arteko harremanen arauketa. Ezagutzen den lehen ituna Kaldeako Lagash eta Umma hiriek bien artean egin zutena da, Kristo aurreko 3.200 urtean; itun horren bidez, mugak ezarri zituzten gerra baten ondoren.

Estatu modernoa sortu eta gero, batak bestea burujabetzat eta juridikoki berdintzat hartzen zuten estatuen aniztasuna aitortzearekin batera bestelako nazioarteko zuzenbide bat sortu zen XVI. mendetik aurrera, esate baterako 1648ko Westfaliako itunak sinatu zituztenean eta halako une garrantzitsuetan. Itun horiek izan ziren Europako Erdialdean ordena berri baten abiapuntua, eta oreka bilatu zen estatu batzuek beste batzuei ezer ez inposatzeko, subiranotasun nazionalaren eta estatuen lurralde-integritatearen kontzeptuan oinarrituta.

II.2.3. Ohitura (usadioa)

Bilakaera murriztena duten zuzenbideetan nagusia den iturri formala da ohitura (usadioa). Bilakaera luzeena duten sistema juridikoetan, berriz, legea da iturri nagusia. Horrekin lotuta, zuzenbidearen bilakaera luze eta mantsoa laburtzeko tentazioa izaten da egiaztatzen denean legea nagusitu ahala atzera egiten duela usadioak iturri gisa.

John Gilissen aditu belgikarraren definizioari jarraituz, beste definizio hau proposatuko dugu hemen: izaera juridikoko usadioen multzoa, usadio horiek ezinbesteko indarra hartu badute talde soziopolitiko jakin batean, epe aski luzean, ekintza publikoak eta baketsuak behin eta berriz egiteagatik.

II.2.4. Jurisprudentzia

Erabaki judizialeetatik ondorioztatzen diren zuzenbidearen arauen multzoa da jurisprudentzia. Normalean, erabaki judizialen norainokoa prozesuan esku hartzen duten pertsonetara mugatzen da. Mota honetako arauak ez dituzte zuzenbidearen arau orokorrak agertzen, eta ez dute *erga omnes* indarrik izaten, epaiaren motibazioan adierazten diren arren. Dena den, epaileek eta bereziki diziiplina juridikoan hezi diren epaile profesionalek (herri epaileek ez bezala) joera izaten dute legeak eta usadioak beren aurrekariekin bat etorritz interpretatzeko. Horrez gain, segurtasun juridikoa aurrekariari egozten zaien agintearen arabera izaten da.

Jurisprudentzia Ingalaterrako *Common Law* izeneko osatzeko eta garatzeko izan da batik bat garrantzitsua, eta eginkizun xumeagoa izan du Europako beste zuzenbide batzuetan, nahiz eta ez den gutxiesteko modukoa.

Ingalaterran, aginte hori nahiko nabarmena da: *stare decisis* printzipioaren arabera, epaileek ezin dute aldatu jurisdikzio garrantzitsu batzuek emandako zuzenbidearen interpretazioa. Printzipio hori ia ez zen onartu kontinentean, baina aurrekari judizialen agintea nabarmena izan da maiz, iraganean zein orain, egia esan.

II.2.5. Doktrina

Doktrina legelari handien obretatik ondorioztatzen diren arau juridikoen multzoa da. Izan ere, botere politikorik edo judizialik ez duten juristek, hau da, legelari edo epaile ez direnek, ezin dute arau juridikorik sortu; baina, zuzenbidearen ikuskera batzuen arabera, zuzenbidea existitzen dela egiazta dezakete, baita sortua ez denean ere. Bestela esanda, egiaztapenen aurretik ustez badagoen zuzenbide bat aurkitzen dute. Kasu horretan, doktrina eginkizun nabarmena izan du, adibidez, erromatar zuzenbidearen historiaren garai batzuetan.

Halaber, doktrina lagungarri izan daiteke atzerriko zuzenbidea ordezeko gisa gehitzeko. Hala gertatu zen Erdi Aroan, kasu berezi honetan: erromatar zuzenbidea Europako zuzenbide gehienetan hartzea edo sartzea lortu zuen doktrina erromanistak, hau da, unibertsitateetan erromatar zuzenbidea ikasi zuten legelari nagusien obrek osatzen duten doktrinak.

Amaitzeko, esan beharra dago zuzenbidearen zientziaren oinarrian dagoela doktrina. Sailkatzeko, sistematizatzeko, aztertzeko eta laburbiltzeko ahaleginei esker, legelari jakintsuek edo adituek zuzenbidea zientzia bihurtu zuten, eta horrela sortu zen jakintsuen zuzenbidea edo irakasleen zuzenbidea (*Juristenrecht*). Aurre-rapen juridikorako faktore garrantzitsua da hori, baina batzuetan gero eta zehatzagoa da zuzenbide teorikoaren eta benetan existitu den zuzenbidearen arteko bereizketa.

II.2.6. Zuzenbidearen printzipio orokorrak

Zuzenbidearen printzipio orokorrak dira, idatzirik egon gabe, ordenamendu juridikoaren funtsa eta legeak egiteko oinarria diren ideiak eta oinarriak. Historikoki, printzipio horiek erromatar zuzenbidetik eta zuzenbide naturaletik hartzen ziren. Biak zetozen bat honekin: *tria iuris praecepta* (*honeste vivere, alterum non laedere, suum cuique tribuere*), hau da, hiru agindu juridikoak (zintzoki bizitzea, besteari txarrik ez egitea eta bakoitzari berea ematea). Zuzenbidearen hiru aginduak lehenengoz Ulpianok aipatu zituen bere *Institutiones* liburu multzoan, eta gero *Corpus iuris civilis* bilduman jaso ziren (D. I, 1, 10, 1 eta I, 1, 1, 3 (*Iuris praecepta sunt haec: honeste vivere, alterum non laedere, suum cuique tribuere*). *Ius commune* hartzeko lana egin zutenek ere berenganatu zituzten XIX. mendera arte, besteak beste, Peñaforteko Raimundok *Summa iurisen* edo Alfontso X.a Jakintsuak 3. partidan, I. tituluari, 3. legean.

XIX. mendean, legearen garai gorenean, ezeztatu egin zen existitu egiten zirenik zuzenbidearen printzipio orokorrak, baina dimentsio berri bat hartu zuten Bigarren Mundu Gerraren amaieratik aurrera, Nürembergeko epaietan beren balioa aitortu zenean, naziak epaitzeko erabili baitzituzten (naziak alegatzen zuten ez zirela kontzentrazio eremuetan egin zituzten gehiegikerien arduradunak, ordenamendu juridiko alemanarekin bat etorritik aritu zirelako).

Konstituzionalismoan eta kodetze dezimononikoan oinarritzen den doktrina-erabakia handia dago printzipio horien izaerari, funtzioari eta identifikazioari buruz, ugalduta egin baitira eta Mendebaldeko kodeetan zehazten joan baitira.

Espainiako Kode Zibila ezartzen du «Zuzenbidearen printzipio orokorrak legerik edo ohiturarik egon ezean aplikatuko direla, ordenamendu juridikoa informatiboa bada ere» (1.4 art.). Beraz, printzipio orientatzaileak dira, eta ez arau-emaileak. Kode Zibilaren 1. artikuluan ezartzen den bezala, funtzio bikoitza dute: ordenamendu juridikoaren berri ematen dute, arauak egitean eta aplikatzean kontuan hartzen baitira, eta, bestalde, erabiltzen dira konponbide egokiak aurkitzeko zenbait kasutan, legerik edo ohiturarik ez denean.

III. MENDEBALDEKO SISTEMA JURIDIKO NAGUSIAK

III.1. Zuzenbide erromanistak

Zuzenbide erromanistak izeneko sistema juridikoetakoak dira zuzenbide hispaniarak. Zuzenbide erromatarrak beren osaketan eragin handia izan zuelako hartzen dute izen hori.

Hein handi batean, herrialde latindar eta germanikoetako unibertsitateetan landu zuten zuzenbidearen zientzia erromanistaren ondorio dira. Herrialde horiek